

# Irony

JOANA GARMENDIA

Cambridge: Cambridge University Press, 2018, 166 or.<sup>1</sup>

Beste fenomeno pragmatikoetan bezala, ironian, esaldiaren perpausaren esanahi konbentzionalaz harago, beste eduki bat atzeman behar du entzuleak. Hala ere, fenomeno pragmatiko gehienek ez bezala, ironiak esanahi konbentzionaletik desbideratze erradikala dakan. Garmendiaren *Irony* —Cambridge University Pressekoko *Key Topics in Semantics and Pragmatics* sailaren barruan— sakon aztertzen du hitzezko ironia, pragmatikaren ikuspuntutik. Griceren teoria (Grice 1967a/1989, 1967b/1989), erre-lebantziaren teoriaren (*relevance theory*) oihartzunaren azalpena (*echoic account*) (Sperber 1984; Sperber eta Wilson 1981, 1998; Wilson 2006, 2009, 2013; Wilson eta Sperber 1992, 2012), antzezpenaren teoria (*presentense theory*) (Clark eta Gerrig 1984), eta bere teoria, esango balitz bezala egitearen teoria edo asif-teoria (*asif-theory*) (Garmendia 2011, 2013, 2015), lantzen ditu, besteak beste. Hauek dira, besteren artean, liburuan eztabaidagai dituen auziak: ironia positiboaren existentzia, ironiaren arrastoak, eta ironiak sarkasmoarekin eta umorearekin duen harremana. Garmendiak ongi ondutako adibide eta jarduerak eskaintzen ditu eta, horrela, gaian murgiltzeko aukera ematen dio irakurleari. Gainera, beste irakurketa batzuk gomendatzen ditu, hitzezko ironiaren pragmatikara hurbilpen holistikoa eskainiz.

Garmendiak zazpi kapitulutan zehar lantzen ditu auzi horiek. 1. kapituluau, hitzezko ironia definitzen du. 2-4 kapituluau, ironiaren teoria ugari azaltzen ditu, horien bertuteak eta gabeziak argitz, bere ikuspegia aurkeztu aurretik (2.3.2 eta 6.4 ataletan). 5. kapituluau, autoreak azaltzen du hizlariak zer adierazten duen esaldi ironikoa eginez (jarrera negatiboa). 6. kapituluau, hizlariek normalean erabiltzen dituzten arrasto ironikoak analizatzen ditu. Azkenik, 7. kapituluau, hitzezko ironiaren eta hari hurbilekoak zaizkion

---

<sup>1</sup> Eskerrik asko Josu Acosta, Beñat Esnaola eta Joana Garmendiari beraien ohar eta zuzenketengatik eta testu honetan nire Albaceteko “euskalkia” euskara bihurtzeagatik. Lan hau egiteko honako hauek baliatu ditut: Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren beka (FPU15/01035); Eusko Jaurlaritzaren IT1032-16 projektua; eta MCIN/AEI /10.13039/501100011033k diruz lagundutako PID2019-106078GB-I00 proiektua.

beste fenomeno batzuen (hau da, sarkasmoaren eta umorearen) arteko harremana lantzen du.

Lehenengo kapituluan, Garmendiak hitzezko ironia bereizi egiten du bestelako ironia mota batzuetatik (situazio-ironiatik eta ironia dramatikotik) zein gertuko zaizkion beste zenbait fenomenotatik (parodiatik, satiratik eta sarkasmotik). Horrez gain, ironiaren hurbilpen erretorikoa eta pragmatikoa zertan diren ezberdin azaltzen du. Horrela, liburuaren gaia zedarritzen du: hitzezko ironia kasu garbiak, ikuspuntu pragmatikotik aztertutako komunikazio-ekintza intentzional gisa.

2-4 kapituluetan, hainbat teoria azaltzen ditu, ironiari buruzko ikuspegi nagusiak bereiziz: ironia ukazio gisara (Amante 1981; Garmendia 2011, 2013, 2015; Giora 1995; Giora *et al.* 1998; Grice 1967a/1989, 1967b/1989; Haverkate 1990), oihartzun gisara (Curcó 2000; Kreuz eta Glucksberg 1989; Sperber eta Wilson 1981, 1998; Sperber 1984; Wilson 2006, 2009, 2013; Wilson eta Sperber 1992, 2012) eta antzezpen gisara (Clark eta Gerrig 1984; Currie 2006; Kumon-Nakamura *et al.* 1995; Recanati 2004, 2007; Walton 1990).

Lehenengo teorianen taldean (2. kapituluan), autoreak Griceren ikuspegi jartzen du arreta. Ironia implikatura gisara azaltzen du Gricek (Grice 1967a/1989, 1967b/1989), eta hiru baieztapen funtsezko egiten ditu, ondorenko teoriek ere oinarritzat izango dituztenak. Hiru baieztapenak honako hauek dira: (i) ironia negatiboa da (beti), (ii) ironikoki hitz egitea antzeztea da, eta (iii) ez dago ahots-tonu ironikorik. Hiru alderdi horiek —hau da, esaldi ironikoak adierazten duen jarrerak, ironiaren eta antzezpenaren arteko harremanak, eta ahots ironiko baten existentzia(rick eza)k— liburuan azaltzen diren teoriak alderatzeko aukera ematen dute. Behin Griceren teoria azaldu eta gero, teoria honek sortzen dituen arazoak azaltzen ditu autoreak, eta baita teoriaren garapen berriak ere labur, hala nola hizketa-ekintzen teoria (*speech act theory*) (Amante 1981; Haverkate 1990), zeharkako ukapenaren teoria (*indirect negation theory*) (Giora 1995; Giora *et al.* 1998), eta bere teoria propioa, asif-teoria (Garmendia 2011, 2013, 2015).

3. kapitulua oihartzunaren teorian zentratzen da (Sperber 1984; Sperber eta Wilson 1981, 1998; Wilson 2006, 2009, 2013; Wilson eta Sperber 1992, 2012). Teoria honen arabera, hiztun ironikoak oihartzun egiten dio beste norbaitek (edo hiztunak berak beste uneren batean) egindako esaldi bati edo izandako uste bati. Jarraian, Garmendiak teoria hori Griceren ikuspegiarekin alderatzen du, lehen aipatutako hiru puntuen arabera. Azalpenaren egileek diote (i) ironia positiboa ere izan daitekeela, (ii) ironikoki hitz egitea ez dela antzeztea, eta (iii) badela ahots-tonu ironiko bat. Hemen aipagarria da Garmendiak irakurlea arretaz gidatzen duela teoria honek proposaturiko nozioek eta terminologiak urteetan izan duten eboluzioan zehar. Oihartzunaren teoria garatu egin da urteetan zehar, kritikei aurre egin nahian,

eta ironiari buruz duten ikuspegia argitu eta egokitu egin dute. Emaitza gisa, alde batetik, *oihartzun* terminoaren esanahia arian-arian aldatu egin da (esaldi esplizitu baten oihartzunetik, balizko uste baten edo are itxaropen orokor baten oihartzunera). Bestalde, erabilitako terminologia ere aldatu egin da. Jatorrizko oihartzunezko aipamenari (*echoic mention*), oihartzunezko interpretazioa (*echoic interpretation*) edo oihartzunezko atribuzioa (*echoic attribution*) deitu diote bertsio berriagoetan (Wilson 2006, 2009, 2013; Wilson eta Sperber 2012). Aldaketa horiek nahasgarriak izan daitezke ikertzaile hasiberriarentzat. Beraz, Garmendiaren gida bereziki lagungarria da atal honetan. Ondoren, teoria honek sortzen dituen arazoak azaltzen ditu (zehaztuz teoriaren zein aldiri dagokion kritika). Kapituluaren azken atalean, teoria honen bi aldaera deskribatzen ditu: oihartzunezko gogorazpenaren teoria (*echoic reminder theory*) (Kreuz eta Glucksberg 1989) eta Curcóren errelebantzaren teoriaren defentsa (Curcó 2000) Gioraren (1995) kritikaren aurka.

4. kapituluak ironia antzezpen gisara aztertzen du, Clark eta Gerrigen (1984) antzezpenaren teorian zentratuz. Ikuspegi hori Griceren ikuspegia-rekin alderatzen du. Autore horien arabera, (i) ironia positiboa ere izan daiteke, (ii) ironia antzezpena da, eta (iii) bada ahots-tonu ironiko bat. Antzezpenaren teoriak sortzen dituen arazoak labur aztertu ondoren, hurrengo atalean teoria hori oihartzunaren teoriarekin erkatzen du Garmendiak. Zenbait autoreren arabera, oihartzunaren eta antzezpenaren nozioak, izatez, ez dira elkarren artean oso ezberdinak (Camp 2012: 3; Garmendia 2018: 66). Azken finean, ironikoa denean hiztunak beste pertsona baten esaldi edouste bati oihartzuna egiten badio, esan ahalko genuke hiztuna antzezten ari dela pertsona hura dela esaldi hori egiten. Nolanahi ere, bi teorien egileek argudiatu dute oihartzuna eta antzezpena bi nozio ezberdin direla, eta bataren edo bestearen abantailak erakutsi nahi izan dituzte. Amaitzeko, Garmendiak jatorrizko antzezpenaren teoriaren arazoak gainditzen dituzten garapen batzuk aurkezten ditu (Currie 2006; Recanati 2004, 2007; Walton 1990; Kuman-Nakamura *et al.* 1995).

Hitzezko ironiaren teoria nagusiei buruzko eztabaidea amaitu ondoren, autoreak teoria guztien hari komun bat azterzera jotzen du: ironiak jarrera baten adierazpena dakar (5. kapitulua). Autoreak ironia positiboa izan daitekeela dioen ikuspuntu orokorra azaltzen du, nahiz eta ironia positibo kasuak bakanak izan. Hala ere, hurrengo atalean ironia positiboaaren existentzia ukatzen du. Garmendiak dio normalean ironia positibo gisa aurkezten diren kasu guztiak ironia negatiboen kasuak direla, edo, bestela, ez direla ironia kasuak. Ondo arrazoituta dago ironia negatibo asko oker jo direla positibotzat; “ironia positibo hutsa”ren (*purely positive irony*) interpretazioa txantxa gisa, aldiz, ez da hain konbentzigarria. Garmendiak justifikatzen du jarrera negatiborik ezean “adierazpen horiek [ironia positibo hutsaren kasuak] informaziorik gabe eta zentzurik gabe agertuko liratekeela” (Garmen-

dia 2018: 102).<sup>2</sup> Berak dio ironikoa izatearen arrazoia jarrera negatiboaren adierazpena dela, baina, era berean, norbaitek esan dezake ironia positiboaaren helburua jarrera positiboa adieraztea dela. Autoreak, beraz, ez-ironikotzat hartzen ditu bere teoriari egokitzen ez zaizkion adibideak (beti negatibo gisa deskribatuak). Zentzu horretan, bere teoriak beste teoriek duten problema bera dauka: eredu mota jakin bat azaltzen dute, baina ironiaren kontzeptu nagusira zuzenean egokitzten ez diren beste eredu mota batzuk azaltzeko arazoak dituzte. Gainera, ironiaren jarrerari dagokionez, kapitulu honetan ez da ageri jarrera ironiko hori zerengana edo norengana zuzentzen den.<sup>3</sup>

5. kapituluaren amaieran, ñabarduraren hipotesia (*tinge hypothesis*) aurkezten da (Dews eta Winner 1995, 1999; Dews *et al.* 1995). Hipotesi honek azaldu nahi du hiztunak zergatik erabiltzen duen ironia, kritika edo laudorio zuzenen ordez. Nahiz eta ironikoa izatean badagoen arriskurik hiztuna gaizki ulertua izatekoa, esaldi ironikoak kutsu positiboa (edo negatiboa, ironia positiboaaren kasuan) edukiko luke; alegia, kritika (edo laudorioa) arindu egingo luke ironiak.

Azken puntu horri estuki lotuta, 6. kapitulua ironiko izateak dakartzan arriskuei buruzkoa da, eta, horren ondoren, ironiko izateko normalean erabiltzen diren arrastoei buruz hitz egiten du. “Arrasto tradizionalak” (“Traditional cues”) izeneko atalean (6.2 atala), Garmendia ahots-tonu ironikoan zentratzen da, nahiz eta beste arrasto batzuk ere aipatzen dituen. Hemen, laburki, gai horri buruzko literatura experimentala aurkezten du. Kapitulu honetan, ikerketa esperimentalari buruzko eztabaidea sakonagoa sumatu dut faltan. Ikerketa esperimental asko egin dira hitzezko ironiaren ulermena errazten duten arrastoei eskainiak; bereziki, ahots-tonu ironikoari buruzkoak (Bryant eta Fox Tree 2002, 2005; Cheang eta Pell 2008; Glenwright *et al.* 2014; González-Fuente *et al.* 2016; Rockwell 2000), baina baita beste arrasto batzuei buruzkoak ere: testuinguruari (Ivanko eta Pexman 2003; Nakassis eta Snedeker 2002), hiperboleari (Kreuz eta Roberts 1995), aurpegi-adierazpenei (Attardo *et al.* 2003; Deliens *et al.* 2018), arrasto sintaktikoei (Escandell-Vidal eta Leoneti 2014), keinu-codasei (*gestural codas*)<sup>4</sup> (González-Fuente *et al.* 2015) eta abarrei buruzkoak. Egileak ez ditu aztertzen horiek; horren ordez, 2-4 kapituluetañ ironiari loturik ikusi ditugun hiru kontzeptuetan jartzen du arreta, eta arrasto gisara azaltzen ditu. Garmendiarentzat, hiru kontzeptu horiek “esaldi bat ironikoki egitean hiztunek erabiltzen dituzten estrategiak”<sup>5</sup>

<sup>2</sup> [these utterances [the so-called cases of purely positive irony] would appear uninformative and pointless.]

<sup>3</sup> Jarrera ironikoaren jomugari buruz, ikus García-Lorenzo (argitaratzeko).

<sup>4</sup> “Esaldi ironikoa eta gero agertzen diren arrasto audiobisualak” (González-Fuente *et al.* 2015: 26). [[A]udiovisual cues produced after the ironic utterance.]

<sup>5</sup> [strategies speakers use when uttering a sentence ironically.]

dira (115 or.). Hau da: kontrakoa esatea, oihartzuna egitea edo antzeztea ironiko izateko moduak dira, eta ez ironiaren mekanismoak. Ondoren, 6.4 atalean, bere teoria propioa aurkezten du, “ironiaren azalpen minimoa”. Teoria honen arabera, ironiko izateko, hiztunak uste duenaren eta komunikatu nahi duenaren arteko talkak egon behar du, eta jarrera negatiboa adierazi behar da.

Azken bi kapituluetan (5. eta 6. kapituluetan) Garmendiak bere iritzi propia azaltzen du ironiaren jarrerari buruz eta ironiaren arrastoei buruz, hurrenez hurren. Lehen kapituluetan (1-4) liburua testuliburu gisa ikus liteke. Lehen kapituluko sarrera orokorrak eta 2-4 kapituluetako teorien (eta, batez ere, horietatik eratorritako problemen) aurkezpenek balio dute autorearen teoria propioaren bertuteak erakusteko, baina, izatez, beste teorien argudio eta problema nagusien aurkezpen oso baliagarriak dira. 5. eta 6. kapituluetan, ordea, autoreak argi eta garbi azaltzen du gai horiei buruzko bere ikuspegia, eta ez eskuarki gai hauei buruz pentsatzen dena. Gai honetan hasiberri denak gogoan eduki beharko luke hori bi kapitulu horiek irakurtzean.

Azken kapituluan (7. kapituluan), autoreak ironiaren eta beste fenomeno batzuen (sarkasmo eta umorearen) arteko erlazioari eusten dio. Hasteko, ironia eta sarkasmoa termino erabat ordezkarriak direlako ikuspuntua azaltzen du, eta, gero, bi fenomeno ezberdin direla dioen ikuspegian zentratzen da: sarkasmoan biktimak agerikoagoak dira, jarrera gogorragoa da, eta hiztunaren asmoa nabarmenagoa. Umoreari dagokionez, autoreak bi teoria talde aztertzen ditu: nagusitasunaren teoriak (*superiority theories*) eta inkongruentziaren teoriak (*incongruity theories*). Umorearen bi kontzepzio horiek lagun dezakete azaltzen zergatik jotzen diren barregarritzat ironia kasu batzuk: ironian, alde batetik, “hiztunak normalean nagusitasun sentimendua azaltzen du ironiaren biktimarekiko”<sup>6</sup> (140. or.), eta, beste alde batetik, “hiztunak ez du esan nahi esaldiaren eduki koblentzionala, baizik eta beste zerbait (edo esan ez duen horrekiko duen jarrera bat)”<sup>7</sup> (143. or.). Garmendiaren arabera, bi teoriak ez dira kontrajartzen, eta bi teoriek azaltzen dute zer duen ironiak umoretik.

Gai asko uki daitezke ironiari buruz hitz egitean: ironia mota desberdinak (dramatikoa, situazio-ironia, hitzezkoa), alderdi soziokulturalek —hala nola estereotipoak (Pexman eta Olineck 2002b) edo generoak (Taylor 2017)— ironiaren ulermenean duten eragina, ikerketa experimental... Liburu honen helburua teorikoa bada ere, lan experimentalari buruzko eztabaida faltan ematen da hainbat puntutan: ironiaren arrastoez hitz egiten denean (esan dudan bezala), teoria desberdinak aurkezten direnean eta iro-

---

<sup>6</sup> [the speaker tends to express a feeling of superiority towards the target of her irony.]

<sup>7</sup> [the speaker does not intend to say what she puts forward but something different (or an attitude towards what she does not say).]

niaren jarrera negatiboa aipatzen denean. Alde batetik, gero eta arruntagoa da ironiaren teoriak enpirikoki testatzea. Oihartzunaren teoriak hori egin du (egileak azaltzen duen bezala, 52-53. or.), baina baita zeharkako ukapenaren teoriak (Filik *et al.* 2014) edo oihartzunezko gogorarazpenaren teoriak (Kumon-Nakamura *et al.* 1995) ere. Bestetik, zenbait ikerketa enpirikok jarrera ironikoaren gaia jorratu dute (Alba-Juez eta Attardo 2014; Bruntsch eta Ruch 2017; Pexman eta Olineck 2002a). Ikuspegi honetatik, desiragarria zatekeen ikustea ironia positiboari lotuta frogatu eta erakutsi direnak nola egokitzen zaizkion Garmendiaren teoriari.

Bestalde, hitzezko ironia, ikuspegi teorikotik, semantikoki ere azter daiteke. Nahiz eta ez diren egile asko saiatu horretan, ironiak maila semantikoan (hitz jakin baten esanahia edo perpaus edo proposizioaren esanahia aldarazten duen operatzaile logiko gisa) eragiten duela pentsa daiteke.<sup>8</sup> Hurbilketa hori zirriborratzea eta ironia txertatuari (*embedded*) buruzko eztabaidea aurkeztea (Popa-Wyatt 2019) interesgarria zatekeen semantika eta pragmatikaren gai giltzarriak jorratzea helburu duen sail batean.

Liburu honek, laburbilduz, hitzezko ironiaren ikuspegi oso argi eta sakona eskaintzen digu, pragmatika teorikoaren ikuspuntutik. Ironiaren teoria eta alderdi giltzarrien mapa gisa erabil liteke, baita Garmendiaren beraren teorian sakontzeko ere. Ez da ironiarako sarrera bat bakarrik, fenomeno lingüistiko honek dituen alderdi konplexuak lantzeko balio duen testu oso ba-liagarria ere bada.

## Erreferentziak

- ALBA-JUEZ, Laura eta Salvatore ATTARDO. 2014. "The Evaluative Palette of Verbal Irony". In G. Thompson eta L. Alba-Juez (arg.), *Evaluation in Context*. Amsterdam: John Benjamins, 93-115.
- AMANTE, David J. 1981. "The Theory of Ironic Speech Acts". *Poetics Today* 2 (2): 77-96.
- ATTARDO, Salvatore, Jodi EISTERHOLD, Jennifer HAY eta Isabella POGGI. 2003. "Multimodal Markers of Irony and Sarcasm". *International Journal of Humor Research* 16 (2): 243-60.
- BRUNTSCH, Richard eta Willibald RUCH. 2017. "Studying Irony Detection Beyond Ironic Criticism: Let's Include Ironic Praise". *Frontiers in Psychology* 8: 1-15.
- BRYANT, Gregory A. eta Jean E. Fox TREE. 2002. "Recognizing Verbal Irony in Spontaneous Speech". *Metaphor and Symbol* 17 (2): 99-119.
- BRYANT, Gregory A. eta Jean E. Fox TREE. 2005. "Is There an Ironic Tone of Voice?". *Language and Speech* 48 (3): 257-77.
- CAMP, Elisabeth. 2012. "Sarcasm, Pretense, and The Semantics/Pragmatics Distinction". *Noûs* 46 (4): 587-634.

---

<sup>8</sup> Hurbilpen semantikoei buruz, ikus Camp (2012).

- CHEANG, Henry S. eta Marc D. PELL. 2008. "The Sound of Sarcasm". *Speech Communication* 50 (5): 366-81.
- CLARK, Herbert H. eta Richard J. GERRIG. 1984. "On the Pretense Theory of Irony". *Journal of Experimental Psychology: General* 113 (1): 121-26.
- CURCÓ, Carmen. 2000. "Irony: Negation, Echo and Metarepresentation". *Lingua* 110 (4): 257-80.
- CURRIE, Gregory. 2006. "Why Irony Is Pretence". In S. NICHOLS (arg.), *The Architecture of Imagination*. New York: Oxford University Press, 111-33.
- DELIENS, Gaétane, Kyriakos ANTONIOU, Elise CLIN, Ekaterina OSTASHCHENKO eta Mikhail KISSINE. 2018. "Context, Facial Expression and Prosody in Irony Processing". *Journal of Memory and Language* 99: 35-48.
- DEWS, Shelly, Joan KAPLAN eta Ellen WINNER. 1995. "Why Not Say It Directly? The Social Functions of Irony". *Discourse Processes* 19 (3): 347-67.
- DEWS, Shelly eta Ellen WINNER. 1995. "Muting the Meaning A Social Function of Irony". *Metaphor and Symbolic Activity* 10 (1): 3-19.
- DEWS, Shelly eta Ellen WINNER. 1999. "Obligatory Processing of Literal and Nonliteral Meanings in Verbal Irony". *Journal of Pragmatics* 31 (12): 1579-99.
- DYNEL, Marta. 2013. "Irony from a Neo-Gricean Perspective: On Untruthfulness and Evaluative Implicature". *Intercultural Pragmatics* 10 (3): 403-31.
- DYNEL, Marta. 2017. "The Irony of Irony: Irony Based on Truthfulness". *Corpus Pragmatics* (1): 3-36.
- ESCANDELL-VIDAL, Victoria eta Manuel LEONETTI. 2014. "Fronting and irony in Spanish". In A. Dufter eta A. S. Octavio de Toledo y Huerta (arg.), *Left Sentence Peripheries in Spanish: Diachronic, Variationist and Comparative Perspectives*. Amsterdam eta Philadelphia: John Benjamins, 309-42.
- FILIK, Ruth, Hartmut LEUTHOLD, Katie WALLINGTON eta Jemma PAGE. 2014. "Testing Theories of Irony Processing Using Eye-Tracking and ERPs". *Journal of Experimental Psychology: Learning Memory and Cognition* 40 (3): 811-28.
- GARCÍA-LORENZO, Yolanda (argitaratzeko). "Wrong targets and innocent victims of irony". Artikulua prestaketen.
- GARMENDIA, Joana. 2011. "She's (Not) a Fine Friend: 'Saying' and Criticism in Irony". *Intercultural Pragmatics* 8 (1): 41-65.
- GARMENDIA, Joana. 2013. "Irony : Making as If We Pretend to Echo". In I. Kecske eta J. Romero-Trillo (arg.), *Research Trends in Intercultural Pragmatics*. Berlin eta New York: De Gruyter Mouton, 85-104.
- GARMENDIA, Joana. 2015. "A (Neo)Gricean Account of Irony: An Answer to Relevance Theory". *International Review of Pragmatics* 7 (1): 40-79.
- GARMENDIA, Joana. 2018. *Irony*. Cambridge: Cambridge University Press.
- GIORA, Rachel. 1995. "On Irony and Negation". *Discourse Processes* 19 (2): 239-64.
- GIORA, Rachel, Ofer FEIN eta Tamir SCHWARTZ. 1998. "Irony: Grade Salience and Indirect Negation". *Metaphor and Symbol* 13 (2): 83-101.
- GLENWRIGHT, Melanie, Jayanthi M. PARACKEL, Kristene R. J. CHEUNG eta Elizabeth S. NILSEN. 2014. "Intonation Influences How Children and Adults Interpret Sarcasm". *Journal of Child Language* 41 (2): 472-84.
- GONZÁLEZ-FUENTE, Santiago, Victoria ESCANDELL-VIDAL eta Pilar PRIETO. 2015. "Gestural Codas Pave the Way to the Understanding of Verbal Irony". *Journal of Pragmatics* 90: 26-47.

- GONZÁLEZ-FUENTE, Santiago, Pilar PRIETO VIVES eta Ira NOVECK. 2016. "A Fine-Grained Analysis of the Acoustic Cues Involved in Verbal Irony Recognition in French". *Proceedings of the 8th International Conference on Speech Prosody (SP2016)*: 902-6.
- GRICE, H. Paul. 1967a/1989. "Logic and Conversation". In *Studies in the Way of Words*. Harvard: Harvard University Press, 22-40.
- GRICE, H. Paul. 1967b/1989. "Further notes on Logic and conversation". In *Studies in the Way of Words*. Harvard: Harvard University Press, 41-57.
- HAVERKATE, Henk. 1990. "A Speech Act Analysis of Irony". *Journal of Pragmatics* 14 (1): 77-109.
- IVANKO, Stacey L. eta Penny M. PEXMAN. 2003. "Context Incongruity and Irony Processing". *Discourse Processes* 35 (3): 241-79.
- KREUZ, Roger J. eta Sam GLUCKSBERG. 1989. "How to Be Sarcastic : The Echoic Reminder Theory of Verbal Irony". *Journal of Experimental Psychology: General* 118 (4): 374-86.
- KREUZ, Roger J. eta Richard M. ROBERTS. 1995. "Two Cues for Verbal Irony: Hyperbole and the Ironic Tone of Voice". *Metaphor and Symbolic Activity* 10 (1): 21-31.
- KUMON-NAKAMURA, Sachi, Sam GLUCKSBERG eta Mary BROWN. 1995. "How about Another Piece of Pie: The Allusional Pretense Theory of Discourse Irony". *Journal of Experimental Psychology: General* 124 (1): 3-21.
- NAKASSIS, Constantine eta Jesse SNEDEKER. 2002. "Beyond Sarcasm: Intonation and Context as Relational Cues in Children' s Recognition of Irony". *Proceedings of the Annual Boston-University Conference on Language Development* 26 (2): 429-40.
- PEXMAN, Penny M. eta Kara M. OLINECK. 2002a. "Does Sarcasm Always Sting? Investigating the Impact of Ironic Insults and Ironic Compliments". *Discourse Processes* 33 (3): 199-217.
- PEXMAN, Penny M. eta Kara M. OLINECK. 2002b. "Understanding Irony". *Journal of Language and Social Psychology* 21 (3): 245-74.
- POPA-WYATT, Mihaela. 2019. "Embedding Irony and the Semantics/Pragmatics Distinction". *Inquiry* 62 (6): 674-99.
- RECANATI, François. 2004. *Literal Meaning*. Cambridge: Cambridge University Press.
- RECANATI, François. 2007. "Indexicality, Context and Pretense". In N. Burton-Roberts (arg.), *Pragmatics*. Londres: Palgrave-Macmillan, 213-29.
- ROCKWELL, Patricia. 2000. "Lower, Slower, Louder: Vocal Cues of Sarcasm". *Journal of Psycholinguistic Research* 29 (5): 483-95.
- SPERBER, Dan. 1984. "Verbal Irony: Pretense or Echoic Mention?" *Journal of Experimental Psychology: General* 113 (1): 130-36.
- SPERBER, Dan eta Deirdre WILSON. 1981. "Irony and the Use-Mention Distinction". In P. Cole (arg.), *Radical Pragmatics*. New York: Academic Press, 295-318.
- SPERBER, Dan eta Deirdre WILSON. 1998. "Irony and Relevance: A Reply to Seto, Hamamoto and Yamanashi". In R. Carston eta S. Uchida (arg.), *Relevance Theory: Applications and Implications*. Amsterdam: John Benjamins, 283-93.
- TAYLOR, Charlotte. 2017. "Women Are Bitchy but Men Are Sarcastic? Investigating Gender and Sarcasm". *Gender and Language* 11 (3): 415-45.
- WALTON, Kendall L. 1990. *Mimesis as Make-Believe*. Cambridge: Harvard University.
- WILSON, Deirdre. 2006. "The Pragmatics of Verbal Irony: Echo or Pretence?". *Lingua* 116: 1722-43.
- WILSON, Deirdre. 2009. "Irony and Metarepresentation". *UCL Working Papers in Linguistics* 21: 183-226.

- WILSON, Deirdre. 2013. "Irony Comprehension: A Developmental Perspective". *Journal of Pragmatics* 59: 40-56.
- WILSON, Deirdre eta Dan SPERBER. 1992. "On Verbal Irony". *Lingua* 87 (1-2): 53-76.
- WILSON, Deirdre eta Dan SPERBER. 2012. "Explaining Irony". In *Meaning and Relevance*. Cambridge: Cambridge University Press, 123-45.

*Yolanda García Lorenzo*

ILCLI (UPV/EHU)